Zarauzko Udala
Zk./ Nº 2026/8
Data / Fecha 2026/09/25
Akta / Acta

ZARAUZKO UDALA

2026ko UZTAILAREN 28an UDALBATZARRAK EGINDAKO OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA 8 zk.

Zarauzko udaletxeko batzar-aretoan, 2026ko uztailaren 28an, arratsaldeko zazpiretan, Udalbatzarra bildu da, egun eta ordu horietarako aurretik deituta zegoen ohiko osoko bilkura egiteko xedez.

Honako zinegotzi hauek bertaratu dira:

Batzarburua Xabier Txurruka Fernandez jn.

Zinegotziak
Garbiñe Oiarbide Iruretagoiena and.
Irune Urbieta Alberdi and.
Jesus Arana Gomez jn.
Iban San Martin Hernandez jn.
Iker Basurko de Miguel jn.
Leire Arana Olabarrieta and.
Gervasio Gabirondo Fernandez jn.
Estibaliz Agirre Uranga and.
Naiara Mendivil Ayerza and.
Garazi Olaizola Irureta and.
Ainara Landa Argote and.
Ion Arozena Eizagirre jn.
Ainhize Larramendi Larrarte and
Ander Lukas Arantzeta jn.
Jesus Goikoetxea Balentziaga jn
Eider Gurrutxaga Larrañaga and.
Mikel Agirre Etxaniz jn.
Gloria Vazquez Herranz and.
Inaxio Illarramendi Lizarreta jn.

Ez etorriak: Itziar Murua Uria and.

Idazkari akzidentala Xabier Aranburu Soldevilla jn.

Kontu-hartzaile akzidentala Miren Gorrotxategi Zubizarreta and.

Bilkurari hasiera emanda, eguneko aztergaiak aztertu eta eztabaidatu ditu Udalbatzarrak.

GAI-ZERRENDA

1.- 2026KO EKAINAREN 23KO BILKURAREN AKTA ONARTZEA:

ESKU6d9f3b24-b282-4035-907b-5f08d468aefc

ZARAUZKO UDALA

http://bideoakta.zarautz.eus/?pleno=20260728&punto=1

Aho batez onartu dute, zuzenketarik gabe.

2.- ALKATETZAREN DEKRETUEN KONTROLA:

— **2026ko ekainaren 18tik 2026ko uztailaren 22ra**

http://bideoakta.zarautz.eus/?pleno=20260728&punto=2

Segidan, Alkatetzak 2026ko ekainaren 18tik 2026ko uztailaren 22ra erabakitako dekretuen berri izan du Udalbatzak.

3.- TOKIKO GOBERNU BATZARRAREN ERABAKIEN KONTROLA:

— **2026ko ekainaren 22tik 2026ko uztailaren 20ra**

http://bideoakta.zarautz.eus/?pleno=20260728&punto=3

Era berean, Tokiko Gobernu Batzarrak 2026ko ekainaren 22tik 2026ko uztailaren 20ra hartutako erabakien berri izan du Udalbatzak.

4.- **2026KO UZTAILAREN 6KO 1792 DEKRETUAREN BERRI EMAN: UDAL TALDEEK IZENDATUTAKO KIDEEN BERRI HARTZEA ETA BATZORDEEN OSAKETA ZEHAZTEA**

Espedientea: 2025IIII0002

http://bideoakta.zarautz.eus/?pleno=20260728&punto=4

Udalbatzak 2026ko uztailaren 6ko 2026/1792 dekretuaren berri jaso du.

2023ko ekainaren 29ko ez ohiko bilkuran, Udalbatzak informazio-batzordeak eratu, osatu eta horien maiztasuna finkatu zituen.

Ondoren, 2023ko uztailaren 12ko Alkatetzaren 2023/1615 Dekretu bidez, udal taldeek batzorde horietara joateko izendatutako ordezkariak eta ordezkoak zerrendatu ziren.

2024ko ekainaren 6an, EH-Bildu udal taldeak 2024/7628 sarrera-erregistro bitartez jakinarazi zuen, haien zinegotzien aldaketa zela-eta, barne antolaketan moldaketa batzuk egin behar izan zituztela.

ESKU6d9f3b24-b282-4035-907b-5f08d468aefc

ZARAUZKO UDALA

Jarraian, 2024ko irailaren 20ko Alkatetzaren 2024/2051 Dekretu bidez, EAJ-PNV udal taldearen barneko antolaketa berriaren ondorioz, bere bozeramailearen eta batzordeetako kideen aldaketak onartu ziren.

2024ko urriaren 17an, PSE-EEk 2024/12697 sarrera-erregistro bitartez jakinarazi du, haien taldearen barruko aldaketak direla eta, bozeramailearen eta batzordeetako ordezkarietan aldaketak egitea erabaki dutela.

2026ko ekainaren 25ean, EAJ-PNV taldeak eskaera egin du informazio batzordeetan ordezkaritzak aldatzeko.

Proposamena kontuan hartuta, honakoa **ERABAKITZEN DUT**:

Lehenengoa.- Udal taldeek izendatutako kideen berri hartzea eta batzordeen osaketa honela gertzen dela zehaztea:

Antolakuntzako informazio-batzordea

	Ordezkariak	Ordezkoak
Batzordekideak:	**EAJ-PNV** Jesus Arana (lehendakaria) Iban San Martin Xabier Txurruka **EH Bildu** Ainara Landa Ion Arozena Garazi Olaizola **PSE-EE** Inaxio Illarramendi	**EAJ-PNV** Irune Urbieta (lehendakariaren ordezkoa) Garbiñe Oiarbide Gervasio Gabirondo **EH Bildu** Mikel Agirre Ander Lukas Eider Gurrutxaga **PSE-EE** Gloria Vazquez

Herritarren informazio-batzordea

	Ordezkariak	Ordezkoak
Batzordekideak:	**EAJ-PNV** Irune Urbieta (lehendakaria) Jesus Arana (lehendakari ordezkoa) Xabier Txurruka **EH Bildu** Garazi Olaizola Ainara Landa Ion Arozena **PSE-EE** Gloria Vazquez	**EAJ-PNV** Iban San Martin Gervasio Gabirondo Garbiñe Oiarbide **EH Bildu** Mikel Agirre Ander Lukas Eider Gurrutxaga **PSE-EE** Inaxio Illarramendi

Lurraldeko informazio-batzordea

ESKU6d9f3b24-b282-4035-907b-5f08d468aefc

	Ordezkariak	Ordezkoak
Batzordekideak:	**EAJ-PNV** Garbiñe Oiarbide (lehendakaria) Xabier Txurruka (lehendakari ordezkoa) Iban San Martin **EH Bildu** Ainara Landa Garazi Olaizola Ion Arozena **PSE-EE** Inaxio Illarramendi	**EAJ-PNV** Jesus Arana Gervasio Gabirondo Irune Urbieta **EH Bildu** Mikel Agirre Ander Lukas Itziar Murua **PSE-EE** Gloria Vazquez

Kontuen batzorde berezia

	Ordezkariak	Ordezkoak
Batzordekideak:	**EAJ-PNV** Jesus Arana (lehendakaria) Iban San Martin Xabier Txurruka **EH Bildu** Ainara Landa Ion Arozena Garazi Olaizola **PSE-EE** Inaxio Illarramendi	**EAJ-PNV** Irune Urbieta (lehendakari ordezkoa) Garbiñe Oiarbide Gervasio Gabirondo **EH Bildu** Mikel Agirre Ander Lukas Eider Gurrutxaga **PSE-EE** Gloria Vazquez

Bigarrena.- Ebazpen honetan hartzen diren erabakiek eragina izango dute uztailaren 13tik aurrera.

Hirugarrena.- Osoko bilkurari honen berri ematea egingo duen hurrengo bilkuran.

5.- 2025. URTEKO KONTU OROKORRA ONARTZEA

Espedientea: 2026D2030001

http://bideoakta.zarautz.eus/?pleno=20260728&punto=5

2026ko ekainaren 23an egindako bileran, Udaleko Kontuen Batzorde Bereziak aldeko txostena eman zion 2025. ekitaldiko Aurrekontuaren Kontu Orokorrari.

Kontu Orokorra jendaurrean egon zen, 15 eguneko epean, 2026ko ekainaren 29ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean (120 zk.) argitaratutako iragarkiaren bidez; eta ez zen alegaziorik aurkeztu.

ESKU6d9f3b24-b282-4035-907b-5f08d468aefc

Horrenbestez, aipatutako batzordeak hala proposatuta, Udalbatzarrak aho batez honako hau **ERABAKI DU:**

Bakarra.- Zarauzko Udalaren 2025. urteko Kontu Orokorra onartzea eta, halaber, Herri Kontuen Euskal Epaitegiari igortzea.

6.- 2027. URTERAKO UDALERRIKO JAI EGUNA

Espedientea: 2026P3270001

http://bideoakta.zarautz.eus/?pleno=20260728&punto=6

Eusko Jaurlaritzako Lan eta Enplegu Sailaren ekainaren 9ko 90/2026 Dekretuaren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko langileen 2027. urteko jaiegunen egutegia onartu da (2026ko uztailaren 16ko EHAA).

Dekretu horretan ezarritakoaren arabera, Udalari dagokio 2027. Urterako udalerriko tokiko jaieguna proposatzea.

Horiek horrela, ikusita espedientean dagoen dokumentazioa eta Antolakuntzako informazio-batzordeak irizpena eman ondoren, Udalbatzarrak, aho batez **ERABAKI DU:**

Lehena.- Xedatzea 2027ko ekainaren 26a, larunbata, San Pelayo eguna, udalerriko 2027ko tokiko jaieguna izatea.

Bigarrena.- Eusko Jaurlaritzako Lan eta Enplegu Sailari proposatzea 2027ko ekainaren 26a, San Pelaio eguna, 2027. Urteko udalerriko tokiko jaiegun gisa ezar dezala.

7.- BITARTEKO FUNTZIONARIOAK HAUTATZEKO ETA LAN-POLTSAK KUDEATZEKO PROZEDURA ARAUTZEN DUEN ERREGELAMENDUA. HASIERAKO ONESPENA

Espedientea: 2026P3950001

http://bideoakta.zarautz.eus/?pleno=20260728&punto=7

Euskal Enplegu Publikoaren abenduaren 1eko 11/2022 Legearen 77. artikuluak ezartzen du bitarteko funtzionarioak hautatzeko prozedura arinak erabiliko direla, eta prozedura horietan berdintasun-, merezimendu- eta gaitasun-printzipioak, publizitate- eta lehia askea bermatuko direla. Horretarako, beharrezkotzat jotzen da Zarauzko Udalean bitarteko funtzionarioak hautatzeko eta lan-poltsak kudeatzeko prozedura arautzen duen erregelamendu argi, eguneratu eta gardena ezartzea.

ESKU6d9f3b24-b282-4035-907b-5f08d468aefc

ZARAUZKO UDALA

Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 22 eta 49. artikuluaren arabera, erregelamenduak onartzea Udalbatzaren eskumena da eta behin behinean onartu ondoren jendaurrean jarri beharko dira gutxienez hogeita hamar egunez, erreklamazioak eta iradokizunak aurkezteko.

Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen duen urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 37.1 artikuluaren arabera, araudi honetan jasotzen diren hainbat alderdi negoziatu egin behar dira eta hala egin da 2026ko uztailaren 7ko negoziazio-mahaian.

Hori guztia dela eta, espedientean dagoen dokumentazioa ikusita eta Antolakuntzako Informazio Batzordeak irizpena eman ondoren, Udaleko Osoko Bilkurak, aho batez honako hau **ERABAKI DU:**

Lehenengoa.- Hasierako onespena ematea bitarteko funtzionarioak hautatzeko eta lan-poltsak kudeatzeko prozedura arautzen duen erregelamenduari (erabaki honekin batera doa eranskina).

Bigarrena.- Bitarteko funtzionarioak hautatzeko eta lan-poltsak kudeatzeko prozedura arautzen duen erregelamenduaren hasierako onespena Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea eta iragarkia argitaratzen denetik hogeita hamar egun balioduneko epean jendaurrean jartzea. Jendaurrean jartzeko epea amaituta inolako erreklamazio edo oharpenik aurkezten ez bada, erregelamendua behin betiko onartutzat joko da, beste erabakirik hartu beharrik izan gabe.

BITARTEKO FUNTZIONARIOAK HAUTATZEKO ETA LAN-POLTSAK KUDEATZEKO PROZEDURA ARAUTZEN DUEN ERREGELAMENDUA

ZIOEN AZALPENA

Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen Testu Bateginaren 55. artikuluak enplegu publikoan sartzeko eta zerbitzu-harremanaz jabetzeko printzipioak arautzen ditu –urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartu zen testu hori–. Bada, dioenez, funtzionarioak hautatzeko berdintasun, merezimendu eta gaitasun printzipio konstituzionalak errespetatu behar dira, baita legediak berak ezartzen dituen honako printzipio hauek ere:

a. Deialdien eta haien oinarrien publizitatea
b. Gardentasuna
c. Hautaketa-organoetako kideen profesionaltasuna eta inpartzialtasuna
d. Independentzia eta diskrezionalitate teknikoa hautaketa-organoen jardunean
e. Hautaketa-prozesuetako edukiaren eta garatu beharreko eginkizunen edo zereginen arteko egokitasuna.
f. Bizkortasuna, hautaketa-prozesuetan objektibotasuna alde batera utzi gabe.

Bitarteko funtzionarioak hautatzeari dagokionez, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen Testu Bateginaren 10. artikuluak adierazten du hautaketa hori prozedura arinen bidez egin beharko dela, betiere berdintasun, merezimendu, gaitasun eta publizitate printzipioak errespetatuz.

ESKU6d9f3b24-b282-4035-907b-5f08d468aefc

Era berean, Euskal Enplegu Publikoaren abenduaren 1eko 11/2022 Legearen 77. artikuluak ezartzen du bitarteko funtzionarioak hautatzeko prozedura arinak erabiliko direla eta prozedura horietan berdintasun, merezimendu eta gaitasun printzipioak, publizitate- eta lehia askea bermatuko direla. Izangaiek, halaber, kasuan kasuko lanpostua betetzeko eskatzen diren titulazio-baldintza orokorrak eta gainerako baldintzak bete beharko dituzte.

Zarauzko Udalak, orain arte, bitarteko enplegatuen izendapenak kudeatzeko, 2006ko martxoaren 9an Tokiko Gobernu Batzarrak onartutako irizpideak erabili ditu. Irizpide horiek, denboraren poderioz, zaharkituta gelditu dira. Urteotan lan-poltsen kudeaketan izandako esperientziak agerian utzi du indarrean dagoen sistemak hobekuntzak behar dituela, irizpideok ez baitute gaitasun nahikorik egungo antolaketa-beharrei nahiz indarrean dagoen araudiari erantzuteko.

Horrenbestez, beharrezkotzat jotzen da Zarauzko Udalean bitarteko funtzionarioen hautaketa kudeatzeko erregelamendu argi, eguneratu eta gardena ezartzea. Erregelamendu horrek, alde batetik, bitarteko funtzionarioak hautatzeko arintasuna bermatu behar du, eta, bestetik, enplegu publikora sartzeko printzipio konstituzionalak —berdintasuna, merezimendua, gaitasuna eta publizitatea— erabat errespetatuko dituen kudeaketa- eredua ezarri behar du.

Horri guztiari jarraiki, honako hauek ezartzen dira:

I. XEDAPEN OROKORRAK

1. Artikulua.- Xedea

Erregelamendu honen xedea da Zarauzko Udalean aldi baterako lan-poltsen osaera eta erabilera arautzea eta, orokorrean, bitarteko funtzionarioen hautaketa-prozedura arautzea.

2. Artikulua.- Aplikazio-eremua

2.1. Erreglamendu hau Zarauzko Udalean bitarteko funtzionarioak hautatu eta horien izendapenetarako sorturiko lan-poltsak kudeatzeko erabiliko da.

2.2. Erregelamendu honen xedapenak ez dira aplikatuko lanpostuak zerbitzu-eginkizunen bidez edo behin-behineko atxikipenaren bidez hornitzeko prozesuetan, ezta Udaltzaingoko lanpostuak eta Toki Administrazioko gaikuntza nazionala duten funtzionarioei gordetako lanpostuak betetzeko prozesuetan ere.

3. Artikulua.- Bitarteko langileak hautatzeko printzipio orokorrak

3.1. Bitarteko langileak hautatzeko Zarauzko Udalak berdintasun, publizitate, merezimendu eta gaitasun printzipioetan oinarritutako prozedurak baliatuko ditu; horrez gainera, ahalik eta bizkortasun handienaz jarduten saiatuko da, eta hautagaien interesak zerbitzu publikoaren interesarekin bateratuko ditu.

3.2. Zarauzko Udalak, beraz, bitarteko langileak hautatzeko garaian, honela jardungo du:

a. Deialdiak eta lan-poltsetako kide izateko baldintzak argitaratuko ditu.
b. Enplegu publikoan sartzeko baldintza orokorrak eta postuaren eskakizunak kontuan izanik, berdintasun printzipioa errespetatuz arituko da.
c. Hautagaiaren merezimenduak eta gaitasuna kontuan izango ditu, izangaiak lan-poltsetan sartzeko eta haietan izango duten ordena ezartzeko.
d. Prozesuen kudeaketan gardentasunez arituko da.

4. Artikulua.- Lan-poltsak kudeatzeko eskumena

ESKU6d9f3b24-b282-4035-907b-5f08d468aefc

Zarauzko Udaleko Giza Baliabideetako Departamentuari dagokio lan-poltsen kudeaketa; horretarako, erregelamendu hau eta aplikagarri den gainontzeko legedia erabiliko ditu.

II. LAN-POLTSAK OSATZEA

5. Artikulua.- Lan-poltsen osaera eta indarraldia

5.1. Lan-poltsak eskumena duen udal organoaren ebazpenaren bidez eratuko dira, Udalean karrerako funtzionario moduan sartzeko deialdietan plazarik lortu ez baina probak edo probaren bat gainditu dituzten izangaiekin (oinarri arautzaileetan ezarritakoaren arabera), praktiketako funtzionario edo karrerako funtzionario (praktika aldirik egon ezean) izendatzen dituzten unean.

5.2. Era berean, 7.1.2 apartatuan xedatutakoarekin bat etorriz, bitarteko izendapenetarako berariazko lan-poltsak sortu ahal izango dira, *ad hoc* lan-poltsak eratzeko deialdien bidez.

5.3. Lan-poltsak, zabalpen eta guzti, eta 7.2 puntuan araututako "bitarteko izendapen zerrendak" indarrean egongo dira, harik eta Lan Eskaintza Publiko batetik eratorritako hautaketa-prozesuren baten ondorioz beste lan-poltsa bat sortu arte. Hala ere, Lan Eskaintza Publikoa gainditu duten izangaien kopurua urria bada, alkateak aurrez indarrean zegoen lan-poltsa mantentzea erabaki ahalko du.

5.4. Edozein unetan, ebazpen arrazoitu bidez, eskumena duen udal organoak lan-poltsa jakin bat indarrik gabe uztea erabaki dezake.

6. Artikulua.- Zerrendako kideen lehentasun-ordena

6.1. Izangaiek deialdian lortutako puntuazio-ordenak edo oinarri arautzaileetan ezartzen diren gainontzeko irizpideek ezarriko dute lan-poltsetako izangaien lehentasun-ordena.

6.2. Hautaketa-prozedura batek sarbide orokorraren modalitatea eta desgaitasuna duten pertsonentzat gordetako modalitatea aurreikusten baditu, sarbide-modalitate bakoitzerako lan-poltsa bana sortuko da.

6.3. Lanpostu batek C2 hizkuntza-eskakizuna badu, hautaketa-prozesuko oinarrietan aurreikus daiteke C1 maila duten hautagaiak C2 maila duten hautagaiek osatutako lan-poltsaren subsidiarioa den lan poltsa batean sartzea, otsailaren 22ko 19/2024 Dekretuaren 37. artikuluarekin bat etorriz.

C1 mailarekin lan-poltsan sartu den hautagaiak geroago C2 egiaztatzen badu, C2 duten hautagaien lan-poltsan txertatuko da, hautaketa-prozesuan lortutako puntuazioaren arabera.

7. Artikulua.- Ohiz kanpoko neurriak

7.1. Zarauzko Udalean lanpostu jakin baterako lan-poltsarik ez badago edo, egonda ere, ez badago "lanerako prest" egoeran dagoen izangairik, salbuespen moduan, neurri hauetako bat hartu ahal izango da, poltsa berria sortu arte, lehentasun-ordena honetan:

7.1.1. Lan-poltsarik ez badago edo dauden lan-poltsetan ez badago izangai nahikorik lanerako prest, Udaleko beste lan-poltsa batzuk erabili ahalko dira, eginkizunak oso antzekoak direnean eta eskatutako titulazio-maila bera denean, baldin eta hautatutako pertsonak lanpostuen zerrendan lanpostu jakin horri ezartzen zaizkion baldintzak betetzen baditu. Horrela egindako eskaintzari uko egiteak ez du ondoriorik izango.

7.1.2. Lan-poltsarik izan ezean, edo hartan ez badago izangai nahikorik lanerako prest, eta denbora material eta gaitasun tekniko nahikoa badago, lanpostu jakin batzuk behin-behinekoz betetzeko berariazko lan-poltsak sortzeko deialdiak egin litezke. Deialdi horiek ahal den azkarren egingo dira, betiere publizitate, berdintasun, meritu eta gaitasun printzipioak errespetatuz.

ESKU6d9f3b24-b282-4035-907b-5f08d468aefc

Lan-poltsak zabaltzeko deialdietan puntuaziorik onena lortu duen izangaia LEPen sortutako lan-poltsan azken postuan dagoen izangaiaren atzetik jarriko da.
Lan-poltsa berri bat sortzeko deialdien kasuan, oinarrietan ezarritakoaren arabera ordenatuko da lan poltsa.

7.1.3. Beharra eta premia egiaztatuta daudenean, eta ez dagoenean nahiko denbora edo gaitasunik lan-poltsen deialdi hori *ad hoc* egiteko, salbuespenez, honela joka liteke:

- Lehenik eta behin, beste Administrazio Publiko batzuen lan-poltsak erabiliko dira.
- Salbuespen gisa, aurreko puntuetan jasotakoari jarraituta ere bete beharreko lanposturako izangairik lortuko ez balitz, Giza Baliabideetako teknikariaren txosten arrazoitua egin ondoren, 190/2004 Dekretuaren 58. artikuluarekin bat, Enplegu Zerbitzu Publikoetara jo ahal izango da. Halakoetan, dagokion enplegu zerbitzuak proposatutako pertsonek lanpostua betetzeko eskatzen diren oinarrizko baldintzak bete beharko dituzte, eta prozedura labur baten bidez egingo da hautaketa, aipatutako berdintasun, meritu eta gaitasun printzipioekin bat.

7.2. Aurreko puntuko (7.1.3) bideetakoren baten bidez (beste Administrazio Publiko batzuek utzitako lan-poltsen bidez edo Enplegu Zerbitzu Publikoen bidez) izendatzen diren pertsonak lan-poltsa propioetan sartuko dira azken postuan, behin praktikaldia gaindituta, baldin eta praktikaldiko ebaluazio-txostena aldekoa bada. Lan-poltsarik ez badago "bitarteko izendapen zerrenda" bat eratuko da izendapen berrien ondorioetarako. Bitarteko izendapenen zerrendaren lehentasun-ordena Zarauzko Udalean emandako zerbitzu denboraren araberakoa izango da.
Lan-poltsara edo bitarteko izendapen zerrendara atal honetan ezarritako moduan sartu direnek Zarauzko Udalean duten izendapenari uko egiten badiote lan-poltsa edo zerrenda horretatik kanpo gelditzuko dira, salbu eta Zarauzko Udaleko beste eskaintza bat onartu badute edo beste Administrazio edo enpresa batean lanean hastekoa bada, eta betiere honako epe hauetan gauzatu bada uko egite hori:

- Lanpostu hutsa betetzen ari denean, lanpostu horri dagokion hautaketa-prozesuaren behin betiko emaitzak argitaratzen direnetik aurrera.
- Gainontzeko kasuetan, izendapena amaitzeko hilabete edo gutxiago geratzen bada.

III. LAN-POLTSEN KUDEAKETA

8. Artikulua.-Lan-poltsetako kideen egoera posibleak

8.1. Zarauzko Udalak osatzen dituen lan-poltsetako kideak egoera hauetakoren batean egongo dira:

8.1.1. **Lanerako prest.** Egoera honetan dagoen hautagaiak lan-eskaintzak jaso ditzake. Lan-poltsa bateko hautagaien zerrendan aldi baterako zerbitzuak emateko deituak izateko zain daudenak daude egoera honetan.
Egoera honetara igaroko dira "lanean" egoeran dauden pertsonak, Zarauzko Udalean duten izendapena amaitzeko hilabete edo gutxiago geratzen denean, edo plaza hutsa betetzen ari direnen kasuan, betetzen duten plazari dagokion hautaketa-prozesuaren behin betiko emaitzak argitaratzen direnean.

8.1.2. **Lanean.** Zerbitzuak ematen ditu Zarauzko Udalean. Egoera horretan dagoen bitartean, langileak honako lan-eskaintza hauek bakarrik jaso ahal izango ditu:

i. Sei hilabete baino gehiagoko iraupena duela aurreikusten den lan-eskaintzak, betiere indarrean duen izendapenaren iraupena eskaintzen den izendapenarena baino laburragoa dela aurreikusten denean.
ii. Lanaldiaren ehuneko handiagoa dakarten izendapenak.

ESKU6d9f3b24-b282-4035-907b-5f08d468aefc

"Lanean" daudenen egoera ez da aldatuko jasotako lan-eskaintzari uko eginda ere.

8.1.3. **Aldi baterako baja.** Izangaiek ez dute jasoko lan eskaintzarik egoera honetan dauden bitartean. Egoera honetara igarotzeko arrazoiak honako hauek izango dira:

i. Beste Administrazio edo entitate batean edota sektore pribatuan zerbitzuak ematen aritzea. Egiaztatu ahal izateko izendapena, lan-kontratua edo Gizarte Segurantzan autonomo izateko alta erabiliko dira. "Lanerako prest" egoerara igarotzeko, izendapena edo lan-kontratua amaitu dela edo amaitzear dela egiaztatu beharko da.

ii. Lanerako prest egon eta lanerako aldi baterako ezintasun egoeran egotea, baldin eta behin betiko baja egoera ez badagokie. Medikuaren baja-agiriaz edo mediku azterketaren egiaztagiri bidez frogatu beharko da. Aldi baterako ezintasunik izanez gero, «lanerako prest» egoerara igarotzeko, medikuaren senda-agiria jaso dela frogatu beharko da.

iii. Jaiotza, adopzio edo harrera xedeekin egindako zaintza baimenean egotea. Gizarte Segurantzaren ebazpen bidez egiaztatuko da. "Lanerako prest" egoerara igarotzeko onartutako aldia amaitzeko, Gizarte Segurantzak emandako ebazpena aurkeztu beharko da.. Nazioarteko adopzio edo harreren kasuan, gurasoek adoptatu beharreko umearen herrira joan beharko balute, "aldi baterako baja" egoerara igarotzeko eska lezakete, tramitazio-agentziak bidaia egin beharra dagoela egiaztatzeko egindako ziurtagiri bidez, dena delako aldirako.

iv. Hiru urte baino gutxiagoko seme-alabak nahiz beren ardurapeko senitartekoren bat zaintzeko baimena eskatzea, azken kasu horretan odolkidetasun edo ezkontza-ahaidetasunaren bigarren graduraino, bigarren gradua ere barne, senitarteko hori adinagatik, istripuagatik, gaixotasunagatik edo ezintasunagatik, ezin bada berez baliatu eta ordaindutako lanik egiterik ez badu. Adingabekoei dagokienez, jaiotza-ziurtagiria edo familia-liburua aurkeztu beharko dute; ardurapean duten senidea izanez gero, medikuaren egiaztagiria. Atal honetan ere sartuko da indarrean dagoen araudiak onartutako gurasotasun-baimenaz gozatzea.

v. Zerbitzu berezietako egoeran egotea. Lan-kontratuz, izendapenez edo kredentzial bidez frogatuko da. "Lanerako prest" egoerara igarotzeko, zerbitzua amaitu izana ziurtatu beharko da.

vi. Administrazio Publikoan izendapen libreko plaza bat betetzeko izendatuak izatea. Izendapen bidez egiaztatu beharko da. "Lanerako prest" egoerara igarotzeko, aurreko egoera amaitu izana ziurtatu beharko da.

vii. Ezkontzea edo izatezko bikotea osatzea, baldin bata zein bestea egin zutenetik Udaleko langileen lan-baldintzak arautzeko hitzarmenean ezarritako egunak iragan ez badira. Egoera hori Familia Liburu edota beste edozein egiaztagirirekin egiaztatuko da.

viii. Alegatu eta egiaztatzen diren ohiz kanpoko kasuak eta ezinbestean gertatzen direnak, zeinak aintzatetsi behar dituen dagokion udal organo eskudunak.

"Aldi baterako baja" egoera egiaztatzea: izangaiek 10 egun baliodun izango dituzte goian adierazitako egoeraren batean daudela egiaztatzeko. Hala egin ezean, hautagaiak bere borondatez eskaintzari uko egin diola ulertuko da, eta erregelamendu honetan kasu horietarako aurreikusitako arauak aplikatuko dira, hau da, behin betiko bajara pasako da, 8.1.4.ii) atalean aurreikusitako salbuespenekin.

"Lanerako prest" egoerara pasatzea: aldi baterako baja egoera eragin duen arrazoia bukatzean, interesdunak idatziz jakinaraziko dio Giza Baliabideetako Departamentuari, dagozkion egiaztagiriak erantsiz. Zarauzko Giza Baliabideetako Departamentuak

ESKU6d9f3b24-b282-4035-907b-5f08d468aefc

ofizioz pasatuko du “lanerako prest” egoerara artikulu honen 8.1.3.vii) atalean jasotakoa gertatuz gero, edota Zarauzko Udalean egindako izendapen bat amaituz gero.

“Aldi baterako baja” egoeratik “lanerako prest” egoerara igaro ahalko da artikulu honetako 8.1.3. i) atalean aurreikusitako kasuan, betiere hautagaiak hala eskatuz gero.

Modu horretan "lanerako prest" egoerara igarotzen den hautagaiak nahitaez onartu beharko du hurrengo eskaintzen zaion 6 hilabete edo gehiagoko iraupena duen lehenengo lan-eskaintza. Hori ukatu edo erantzunik jaso ezean, berriro “aldi baterako baja” egoerara igaroko da, eta ezingo da berriz “lanerako prest” egoerara pasa indarrean daukan izendapen edo kontratua amaitu arte.

8.1.4. **Behin-betiko baja.** Egoera horretara pasako dira hautagai hauek:

i. Bere borondatez hala eskatze duena.

ii. Lan-eskaintza bat ukatu duena. Lau egoera hauek salbuetsita daude:

- Lan-eskaintza lanaldi murrizturako izatea.
- Lan-eskaintzak 6 hilabeteko iraupena edo txikiagoa duela aurreikusten den kasuetan.
- Bete beharreko lanpostuaren antzeko postuetarako lan-poltsaren bat erabilita egindako lan-eskaintzari uko egitea, hala xedatzen duelako 7.1.1. artikuluak.
- Hautagaiak lan-eskaintzari uko egitea arrazoitzen duen ezintasun edo mugaren bat duenean eskainitako postuari dagozkion funtzioak betetzeko. Egoera hori txosten medikoaren bidez egiaztatu beharko du.

iii. Indarrean dagoen izendapen bati uko egiten diona, salbu:

- Zarauzko Udalaren beste eskaintza bat onartzen badu.
- Zarauzko Udalean duen izendapena amaitzeko hilabete edo gutxiago geratzen bada eta beste Administrazio edo enpresa baten lanean hasteko egin badu ukoa. Dagokion moduan egiaztatu beharko da.

iv. Lan eskaintza onartuta, lanean benetan hasi ez dena.

v. Izendapen bat onartu, eta horretarako eskatzen den titulazio akademikoa ez dutenak.

vi. Hiltzen direnak, ezintasun iraunkorra dutenak, erretirorako legezko adina betetzen dutenak, edo behi betiko erantzukizun publikoak betetzeko gaitasuna kenduta dutenak.

vii. Zehapen hauetakoren bat jaso duena**:** zerbitzutik baztertzea, eginkizun gabetzea, diziplinazko kausengatiko kaleratzea edo gaitasun-gabetze berezia. Zerbitzutik bereiztea edo eginkizunetatik etete kasuetan, bai eta diziplina kausengatik kaleratze kasuetan ere, zigorraren indarraldia bukatu artekoa izango da epea. Zigorra ezgaitze berezia denean, iraupena ezgaitzerako ezarritakoa izango da.

viii. Erabateko gaitasun-gabetze zigorra jaso duena.

ix. Nahitaezko erretiroa hartzeko adina duena.

x. Zarauzko Udalean ezarritako praktikaldia gainditzen ez duena edo arduradunaren kontrako txostena (11. artikuluan arautzen den moduan) izan duena.

8.2. Artikulu honek arautzen dituen egoerak interesdunak kide diren lan-poltsa bakoitzari dagozkio; alegia, lan poltsa jakin bateko egoera aldatzeak ez du izango eraginik gainerako lan-poltsetako bakoitzaren egoeran.

9. Artikulua.- Lan-poltsak nola kudeatu

9.1. Deiak dagokion poltsaren lehentasun-ordenaren arabera egingo dira beti. Lan-poltsako lehentasun-ordenaren arabera posturik onenean dagoen izangaiari eskainiko zaio

ESKU6d9f3b24-b282-4035-907b-5f08d468aefc

lanpostua, baldin eta "lanerako prest" egoeran badago. Arau horren salbuespenak erregelamendu honen 11. artikuluan aurreikusita daude.

9.2. Eskaintza telefonoz, posta elektronikoz, SMS bidez edo jakinarazpena berehala eta azkar egitea ahalbidetzen duen beste edozein bitartekoren bidez egingo da. Eskaintza egiteko metodoa unean-unean hautatuko da, lanpostua betetzeko dagoen premia eta denboraren arabera.

9.3. Eskaintza telefonoz egiten denean, izangai bakoitzari bi aldiz deituko zaio, egun banatan eta ordu desberdinetan, baita lanpostua betetzea urgentea denean ere, baina kasu horretan bi deiak egun berean egingo dira, batetik bestera gutxienez ordubeteko tartea utzita. Deiak egin direla jasota utziko da.

9.4. Izangaiak emandako gehienezko epean onartu edo baztertu beharko du eskaintza. Epe barruan erantzun ezean, uko egin diola ulertuko da. Eskaintza onartu edo baztertzeko gehieneko epea kasuan kasu ezarriko da, langilea behar duen zerbitzuak aditzera emandako urgentziaren arabera.

9.5. Eskaintzak "lanerako prest" dauden hautagai guztiei egin edo bidaliko zaizkie. Amaitzean jasotako baiezko guztien artean zerrendako hurrenkeran posturik hoberenean egon eta bete beharreko lanpostuko betekizun guztiak betetzen dituen izangaia izango da hautatua. Eskaintza onartzen ez dutenek euren egoera egiaztatu beharko dute, 8. artikuluan aurreikusi bezala.

9.6. Desgaitasuna duten pertsonak izendatzeko legez Administrazio Publikoei erreserbatutako kuotara iritsi arte, edo negoziazioan ezarritakora iritsi arte (azken hori handiagoa bada), desgaitasuna duten langileentzako txanda mugatutik datozen zerrendak badaude, 3 kontratutik edo izendapenetik 1 langile horien alde egingo da. Zerrenda horiek lehentasun-ordenaren arabera erabili beharreko zerrenden osagarri izango dira. Muga berarekin, desgaitasuna duten langileentzako txanda murriztuko zerrendarik ez badago, ahaleginak egingo dira langile horien aldeko kontratu edo izendapen kopuru bera egiteko. Horretarako, langile horiek % 33ko desgaitasuna edo handiagoa aitortua izan beharko dute Administrazioko organo eskudunaren aldetik, eta ezarritako lehentasun-ordenaren arabera erabili beharreko zerrendan sartuta egon beharko dute.

10. Artikulua.- Bete gabeko postuak eskaintzeko arau bereziak

10.1. Gurasotasun-baimena edota norberaren bizitza, familia eta lana bateragarri egiteko baimenak, eta, ondoren hartzen diren oporrak edo bestelako lizentzien ordezkapena pertsona berak egingo du, baldin eta elkarren segidan hartzen badira, etenik gabe.

10.2. Lanpostu bat hutsik deklaratu aurretik bitarteko batek betetzen bazuen eta betetzen zuen pertsona lanpostutik kentzeko legezko arrazoirik ez badago, pertsona horrek lanpostuan jarraituko du, salbu eta Udalak erabakitzen badu postuaren ezaugarriak aldatzea komeni dela edo postua ez duela bitarteko funtzionario bidez beteko.

10.3. Lanpostu bateko dotazio jakin bat lanaldi partzialean betetzen dutenek erabateko lehentasuna izango dute lanaldi luzeagoan betetzeko, zerbitzua zenbat denboran ematea aurreikusten den gorabehera. Era berean, pertsona hauek erabateko lehentasuna izango dute haien lanaldi partzialari lanpostu bereko beste dotazioetan sor litezkeen lanaldi partzialak gehitzeko, baldin eta haien pilaketak lanaldi osoa ez badu gainditzen, eta dagozkion ordutegiak bateragarriak balira.

10.4. Lanpostu koiuntural bat aldi baterako betetzen dutenek, baldin eta giza baliabideen plangintzaren arabera lanpostua lanpostuen zerrendan sartzen bada dena delako beharra egiturazko bihurtzen dela-eta, erabateko lehentasuna izango dute berori aldi baterako betetzeko; betiere, lanposturako eskakizun guztiak betetzen dituztela egiaztatzen bada.

10.5. Aurreko puntua aplikagarria izango da, halaber, betetzen ari den lanpostuari lanpostu-zerrendan aldaketa edo balorazio berri bat egiten zaionean, betiere benetan egindako eginkizunak funtsean aldatzen ez direla egiaztatzen bada.

11. Artikulua.- Bitarteko funtzionarioen praktikaldia

ESKU6d9f3b24-b282-4035-907b-5f08d468aefc

11.1. Euskal Enplegu Publikoari buruzko abenduaren 1eko 11/2022 Legeak 77.2 artikuluan xedatzen du lanpostuak aldi baterako betetzeko ere jarri ahal izango dela praktikaldi bat gainditzeko beharra, bai eta, hala badagokio, prestakuntza-aldi bat ere.

11.2. Beraz, 6 hilabeteko praktikaldia ezartzen da A1 eta A2 taldeetako plazei lotutako lanpostuetarako, eta 3 hilabetekoa gainerako lanpostuetarako.

11.3. Izendapenak praktikaldirako ezarritako epea baino iraupen laburragoa izango balu, eta interesduna gerora berriz izendatuko balitz Udalean lanpostu bera betetzeko edo eginkizun berberetarako, praktikaldiari berriro ekingo litzaioke, aurretik egindako praktikaldiko denbora ondorio guztietarako deskontatuta.

12. Artikulua.- Aldi baterako zerbitzuak emateko bitartekoak eskatzea

12.1. Giza Baliabideetako Departamentuak luzatu gabe tramitatuko du, erregelamendu honen xedapenen arabera, udal arloek egiten dioten behin-behineko zerbitzua emateko eskaera oro.

Nolanahi ere, eskaerak aintzat hartzeko, horietan honako alderdi hauek argi zehaztu behar dira:

- Bete behar den postua.
- Zerk eragin duen bitarteko izendapen beharra.
- Kontratazioa arrunta edo premiazkoa den.
- Zerbitzu-harremanaren iraupena eta jardunaldiaren ehunekoa (balioespena).
- Udal departamentu horretan izendapenaren ardura duen pertsona fisikoa.

Aldi baterako zerbitzu-harreman hori ez badagokio lanpostuen zerrendako ezein lanposturi, eskaeretan honako informazio hau erantsi beharko da:

- Gauzatu beharreko eginkizun zehatzak.
- Bete beharreko lanpostua, eta lanpostu hori betetzeko baldintzak:
  - Sailkapen-taldea.
  - Eskatutako titulazioa.
  - Eskatutako hizkuntza-gaitasuna.
  - Proposatutako lanaldia eta ordutegia.
  - Hautaketa-prozesurako edo kontratazio edo izendapena gauzatzeko garrantzitsua izan daitekeen beste edozein alderdi

13. Artikulua.- Lan-poltsen publizitatea

13.1. Lan-poltsetan hautagai berriak sartzeko hautaketa-prozesu bakoitza edo lan-poltsa berriak sortzeko berariazko prozesu bakoitza bukatutakoan, emaitza udal egoitza elektronikoan argitaratuko da, dagokion atalean.

13.2. Lan-poltsetako hautagaien egoera Zarauzko Udalaren Giza Baliabideetako Departamentuarekin kontsultatu ahal izango da.

14. Artikulua.- Lan-poltsen datuak beste Administrazio Publiko batzuei jakinaraztea

14.1. Datu pertsonalen babesari buruzko legerian xedatutakoari dagokionez, interesdunak espresuki baimena ematen badu, Zarauzko Udaleko lan-poltsa jakin batean jasotako datuak beste Administrazio Publiko batzuei eman ahal izango zaizkie, haiek hala eskatuz gero, Administrazio horiek interesdunei aldi baterako izendapenak egin diezazkieten.

14.2. Nolanahi ere, eskari haiei erantzungo zaie poltsetan libre dauden langileen arabera eta Udalak berak duen langile premiaren arabera.

14.3. Beste Administrazio Publiko batzuei horrelako datuak ematen zaizkienean, soilik "lanerako prest" egoeretan dauden hautagaiei buruzko datuak emango dira, dagokion lan-poltsan duten sailkapen-ordenaren arabera.

ESKU6d9f3b24-b282-4035-907b-5f08d468aefc

Xedapen iragankor bakarra
Erregelamendu honetako 7.2 artikuluan xedatutakoa aplikagarri izango zaie hau indarrean sartzen den unean bitarteko izendapena duten langileei, bai eta erregelamenduak behin-behineko onarpena jasotzen duenetik aurrera bitarteko izendapena amaitzen zaien langileei ere.

Xedapen indargabetzaile bakarra
Erregelamendu hau indarrean sartzen denean, 2006ko martxoaren 9an Tokiko Gobernu Batzarrak egindako bilkuran onartutako Lanpostuak aldi baterako betetzeko zerrendak kudeatzeko irizpideak indargabetuko dira.

Azken xedapena.
Erregelamendu hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean osorik argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

8.- ZARAUZKO UDALAREN ETA EUSKO JAURLARITZAKO ETXEBIZITZA ETA HIRI AGENDA SAILAREN ARTEKO HIRIGINTZA HITZARMENA ONARTZEA, 17.2 EREMUAN –OR IRITA-ALOKAIRUKO BABES PUBLIKOKO ETXEBIZITZAK ETA ZUZKIDURA-BIZITOKIAK SUSTATZEKO

Espedientea: 2026H9890002

http://bideoakta.zarautz.eus/?pleno=20260728&punto=8

Zarauzko Udalak eta Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Hiri Agenda Sailak harremanak eta elkarrizketak izan dituzte Iritako eremuaren garapena bultzatzeko. 2025eko azaroan hasierako adostasuna lortu ondoren, 2026ko maiatzaren 18an, Etxebizitza Sailak lankidetza-hitzarmenaren zirriborroa bidali du.

Hitzarmenak aurreikusten duenez, Udalak doan eta kargarik gabe emango dizkio Euskadiko Erkidegoko Administrazio Orokorrari Iritako partzela eraikigarriak, alokairuko babes publikoko etxebizitzak eta zuzkidura-bizitokiak sustatzeko. Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Hiri Agenda Sailak, bere aldetik, bere gain hartuko du urbanizazioaren eta eraikitzearen ardura eta kostua.

Udalak, 2026ko maiatzaren 25eko Tokiko Gobernu Batzarraren akordioaren bidez, erabaki zuen jendaurrean jartzea. Testu osoa 2026ko ekainaren 15eko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu da. Jendaurreko epean ez da alegaziorik aurkeztu.

Ekainaren 12an, Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza Sailak hitzarmenaren testuaren bertsio berri bat bidali du, euskarazko bertsioaren gramatika-zuzenketa batzuekin; zuzenketa horiek ez diote hitzarmenaren edukiari eragiten.

Toki Ondasunen Erregelamenduaren 110. artikuluak xedatzen duenez, ondasunak doan lagatzeko, Udalbatzako kideen legezko kopuruaren gehiengo osoak hartu behar du erabakia.

Hirigintza eta Ingurumen Departamentuak txostena egin ondoren,

ESKU6d9f3b24-b282-4035-907b-5f08d468aefc

ZARAUZKO UDALA

Udalbatzarrak aho batez **ERABAKI DU**:

Lehenengoa.- ONARTZEA Zarauzko Udalaren eta Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Hiri Agenda Sailaren arteko hirigintza-hitzarmena, 17.2 eremuan -OR Irita- alokairuko babes publikoko etxebizitzak eta zuzkidura-bizitokiak sustatzeko.

Bigarrena.- Alkatetzak edukiko du hitzarmena sinatzeko ahalmena, Udalaren ordezkari gisa.

HITZARMENA

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIO OROKORREKO ETXEBIZITZA ETA HIRI AGENDA SAILAREN ETA ZARAUZKO UDALAREN ARTEKOA

GAIA

BABES PUBLIKOKO ETXEBIZITZAK SUSTATZEA ALOKAIRU ETA ZUZKIDURA-BIZITOKIAK ERREGIMENEAN IRITA 17. EREMUKO 17.2 OR IRITA ESPARRUAN, ZARAUZKO UDALERRIAN.

Vitoria-Gasteizen, sinaduran ageri den datan

HAUEK BILDU DIRA

ALDE BATETIK, Denis ITXASO GONZÁLEZ jauna, Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Hiri Agendako sailburua

ETA BESTETIK, Xabier TXURRUKA FERNANDEZ jauna, Zarauzko Udaleko alkate-udalburua

AGERTU DIRA

Lehenengoa, Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Hiri Agendako sailburu gisa eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra ordezkatuz, Gobernu Kontseiluak 2026ko…….ren …..(e)(a)n egindako bilkuran hartutako erabakiaren ondorioz egintza honetarako baimendua.

Eta bigarrena, Zarauzko Udaleko alkate- udalburua den aldetik, haren ordezkari gisa, egintza honetarako baimendua toki- korporazio horretako osoko bilkurak 2026ko ……. egindako bileran hartutako erabakiaren bidez.

Bi alderdiek elkarri aitortu diote hitzarmen hau izenpetzeko beharrezkoa den legezko gaitasun nahikoa dutela eta, horretarako, honako hau

A D I E R A Z T E N D U T E

LEHENENGOA.- EAEko Autonomia Estatutuaren 10.31 artikuluak adierazten duenez, Euskal Autonomia Erkidegoak eskumen esklusiboa du lurraldearen eta itsasertzaren antolamenduaren, hirigintzaren eta etxebizitzaren arloetan.

ESKU6d9f3b24-b282-4035-907b-5f08d468aefc

ZARAUZKO UDALA

BIGARRENA.- Etxebizitzari buruzko ekainaren 18ko 3/2015 Legearen 2. artikuluan Euskadiko etxebizitza-politikaren printzipio- gidariak adierazten dira, honako hauek besteak beste:

a) Etxebizitza duin, egoki eta irisgarria izateko eskubidea bermatzeko, lankidetzan eta koordinatuta aritzea botere publiko guztiak, Estatuko Administrazio orokorraren mendeko organoak eta EAEko sektore publikoa barne, zeina osatzen baitute Autonomia Erkidegoko Administrazio orokorrak, foru-aldundiek, toki-erakundeek eta haien mendeko titulartasun publikoko erakunde guztiek.

b) Etxebizitza duin eta egokia legez okupatzeko eskubidearen eraginkortasunaren inguruko ekimenetan jarduera publiko eta pribatuak koherenteak izatea

c) Etxebizitzei eta zuzkidura-bizitokiei buruzko politika publikoak planifikatu eta programatzea, kontuan hartuta alokairuko etxebizitza dela Konstituzioan ezarritako etxebizitza-eskubideari erantzuteko funtsezko tresna.

d) Etxebizitza edo bizitoki babestu bat izateko eskubidea erabiltzerakoan edozein diskriminazio desagerraraztea, kolektibo zaurgarrien aldeko ekintza positiboko neurriak ezarrita eta jokabide diskriminatzaileak zigortuta

e) Lurralde-kohesioa egotea sustapen- eta birgaikuntza-neurrien aurreikuspen eta aplikazioaren banaketa orekatuan, eta, aldi berean, etxebizitzen eta zuzkidura-bizitokien eskaintza zabal eta behar bestekoa lortzea.

f) Herritarrek etxebizitzei eta zuzkidura- bizitokiei buruzko politika publikoak formulatzeko prozesuan benetan parte hartzea eta lankidetzan jardutea, bai eta bizitegiak sustatu, eraiki, kontserbatu, birgaitu, berroneratu eta berritzen edo horien administrazio edo kudeaketako zereginetan aritzen diren izaera sozialeko eta irabazi- asmorik gabeko entitateek ere.

g) Etxebizitza babestu eta zuzkidura-bizitoki berrien eraikuntzako esku-hartze guztiak nahiz etxebizitza horien birgaitze- edo eraberritze-jarduketak bizigarritasun-, funtzionaltasun- eta segurtasun-baldintzak hobetzera bideratzea, arreta berezia jarrita irisgarritasunean, baliabide naturalen erabilera eraginkorrean eta gizarte-, finantza- eta ingurumen-jasangarritasunean, diseinu unibertsalaren printzipioei jarraikiz.

h) Jarduera produktiboak eta pertsonen bizitza indibiduala eta familiakoa erantzukidetasunez bateratzen lagunduko duen hiri-planifikazioa bultzatzea, erantzukidetasunezko gizarte- antolaketa erraztuz.

i) Eraikinak, etxebizitzak eta haien ingurune urbanizatua gizarte-erantzukizunez erabil daitezen bultzatzea, duten funtzio soziala errespetatu eta betetzeko.

j) Etxebizitzaren arloan plangintza bat ezarri, garatu eta exekutatzea herritarren premia errealen eta haien egoera pertsonal, sozial, ekonomiko eta laboralen arabera

Hori lurzoruaren kontrol publiko arduratsu eta eraginkorraren bidez baino ezin da bermatu, eta lurzoru publikoa eskuratzeko eta kudeatzeko ekintza irmo baten bitartez osatu behar da. Horregatik, botere publikoek, kasu honetan Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Hiri Agenda Sailak eta Zarauzko Udalak batera esku hartu behar dute, horretara behartuta baitaude, babes publikoko etxebizitzak egin ahal izateko baldintzak sortze aldera.

ESKU6d9f3b24-b282-4035-907b-5f08d468aefc

HIRUGARRENA. – Etxebizitzaren aldeko Itun Sozialak (2022-2036) diagnostiko bat aurreikusten du. Horren arabera, 2021ean Etxebizitza eta Hiri Agenda Sailak babes publikoko 3.000 etxebizitza eraikitzeko lurzoru-ondarea dauka.

Itun Sozialaren helburu nagusia etxebizitzarako eskubidea eskubide eraginkor gisa bizkortzea da. Etxebizitza duin eta eskuragarria izatea giza garapen jasangarriaren funtsezko elementuetako bat da, zeinarekin erabat konprometituta baitago Euskadi. Horretarako, ezinbestekoa da etxebizitza-politika adostua, koherentea eta epe luzerakoa izatea, gure gizarte-ereduaren euskarri gisa ikusiko dena.

Helburu nagusi hori 4 xede kuantitatibotan zehazten da. Horietako bat (2. xedea) hauxe da: 2036an babes publiko iraunkorreko etxebizitzak Euskadin dauden etxebizitza nagusien % 12 izatea, 2021eko % 7,7arekin alderatuta.

LAUGARRENA. – Zarauzko Udala baliabide publikoak eraginkortasunez kudeatzeko estrategia batean murgilduta dago azken 10 urteetan, udalerrian etxebizitza eskuratzeko arazoei aurre egiteko.

Zarauzko bizilagunen etxebizitza izateko eskubidea bete dadin errazteko kudeaketa publikoaren konpromiso eraginkor horren erakusgarri, 2015ean Etxebizitzaren Udal Plana onartu zen. Plan horri esker, babes publikoko 600 etxebizitza baino gehiago sustatu dira, eta horietatik 196 alokairu- erregimenekoak dira. Honako hauek Eusko Jaurlaritzaren eta Zarauzko Udalaren arteko akordioen ondorio dira:

LANPARDO; 25 BOE (alokairua)

BOSGARRENA.- Eusko Jaurlaritzan etxebizitza-arloko eskumena duen saila eta Zarauzko Udala elkarlanean aritu dira azken urteotan Zarautzen babes sozialeko etxebizitzak eta zuzkidura-bizitokiak sustatzeko hainbat jardueratan, eta, besteak beste, honako tresna hauek formalizatu dituzte:

Lankidetza-hitzarmena, 2016ko ekainaren 3an sinatua, Zarauzko HAPOren 2.2. «Aldapeta» geroratutako antolamendu eremuan babes publikoko etxebizitzak sustatzeko.

2017ko abenduaren 21ean sinatutako lankidetza-hitzarmena, 10.2 OR Salberdin eremuan zuzkidura-bizitokien sustapena ahalbidetzeko.

2018ko azaroaren 26an sinatutako lankidetza- hitzarmena, 7-OD Azken Portu eremuko Lanpardo kaleko 1. zenbakian alokairuko babes sozialeko etxebizitzak sustatu ahal izateko.

SEIGARRENA. - Zarauzko Udalak Hiri Antolamendurako Plan Orokorraren (HAPO) aldaketa sustatu du. Aldaketa hori behin betiko onartu zuen Udalbatzak 2024ko uztailaren 23an egindako osoko bilkuran, eta, horren ondorioz, Zarauzko udalerriko 17. eremuko 17.2 OR Irita esparrua mugatu da, babes publikoko etxebizitzetarako, zuzkidura- bizitokietarako eta espazio libreetarako hirigintza-garapena ahalbidetzeko.

ZAZPIGARRENA. - Testuinguru horretan, HAPOren aldaketaren 9. artikuluak «r.1 Bizitegi kolektiboak» antolamendu- araubide xehatua ezartzen du, zehaztapen hauekin:

1. Azalera: 4.356 m²(s).
2. Mugapena: Proiektuaren plano eta grafikoetan ezarritakoa.
3. Kalifikazio xehatuaren ondorioetarako, lurzatia «r. Bizitegi kolektiboa» tipologiari lotzen zaio.

ESKU6d9f3b24-b282-4035-907b-5f08d468aefc

4. Eraikuntza-unitateak: Eraikigarritasun fisikoa, erabilera baldintzak eta eraikuntza-parametroak.

A. Lurzatiaren sestraren gainean eraikuntza-unitate hauek bereizten eta mugatzen dira: «r.1/1», «r.1/2», «r.1/3» eta «r.1/4».

B. Sestra gaineanaurreikusitako eraikigarritasun fisikoa eta xede duen erabilera honako hauek dira: — U.E. r.1/1: 3.275 m²(s). — U.E. r.1/2: 3.275 m²(s). — U.E. r.1/3: 3.275 m²(s). — U.E. r.1/4: 3.275 m²(s). —

Lau eraikuntza-unitateen bizitegi- eraikigarritasuna babes sozialeko etxebizitzen (erregimen orokorreko BOE) araubideari lotuta dago.

ZORTZIGARRENA.- Bestalde, HAPOren 11. Artikuluak «ekipamendu komunitariorako» («eq.1», «eq.2» eta «eq.3») erabilerarako eremu xehatuen antolamendu xehatuaren araubidea ezartzen du, eta azken hori da hitzarmen honekin zuzenean lotuta dagoena. Zehaztapen nagusiak honako hauek dira:

1. Azalerak: — «eq.1»: 1.532 m². — «eq.2»: 3.527 m². — «eq.3»: 1.644 m².
2. Mugaketa: proiektu honen planoetan ezarritakoa.
3. Kalifikazio xehatuko erregimena: «eq Ekipamendu komunitarioa» tipologiako eremu xehatuei dagokiena.
4. Lurzatiaren eraikuntza- eta erabilera- baldintzak: «eq.3» lurzatian zuzkidura-bizitokietarako eraikin bat egongo da, 5.440 m² (t) -ko eraikigarritasun fisikoarekin eta II/VI/a-ko eraikuntza-profilarekin (sestra azpiko bi solairu eta sestra gaineko sei solairu eta atikoa).
5. Lurzatiaren eta eraikinen jabari- baldintzak: aurreikusitako lurzatia eta eraikinak titulartasun publikokoak dira (Zarauzko Udala), ondare-izaerakoak.

BEDERATZIGARRENA. - 17.02 Irita eremua jarduketa integratu baten bidez garatuko da (AAI.17.2.1), eta Urbanizatzeko Jarduketa Programa bat eta birpartzelazio- proiektu bat izango ditu.

HAMARGARRENA.- Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Hiri Agenda Sailak, etxebizitzaren arloan dituen eskumenak baliatuz, alokairuko babes publikoko etxebizitzak eta zuzkidura-bizitokiak eraikitzeko lurzorua behar du etxebizitzen premia egiaztatua duten udalerrietan (eta, horien artean, Zarautzen), errenta-ahalmen txikia izanik etxebizitzaren merkatu librera jotzerik ez duten familientzat. Bi Herri Administrazioek egoki deritzote Etxebizitza eta Hiri Agenda Saila etxebizitza eta zuzkidura-bizitokiak sustatzeaz arduratzeari.

HAMAIKAGARRENA.- Zarauzko Udalak adierazi du Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrari doan eta kargarik (hirigintzakoak izan ezik), errentaririk edo gai kutsagarririk gabe lagatzeko asmoa duela honako hauen jabari osoa:

- plangintzan «r.1 Bizitegi kolektiboa» eremu xehatu gisa mugatutako lurzatia, 4.356 m² (s)-ko azalerarekin.

-plangintzan «eq.3 Ekipamendu komunitarioa» eremu xehatu gisa mugatutako lurzatia, 1.644 m² (s) -ko azalerarekin.

HAMABIGARRENA.- Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Hiri Agenda Sailak adierazi du aurreko azalpenean aipatutako lurzatien jabari osoa doan lagatzea onartu nahi duela, kargarik gabe (hirigintzakoak izan ezik), errentaririk edo gai kutsatzailerik gabe, beharrezkoak diren hirigintza-kudeaketako tresnak idazteko, birpartzelazioa barne, eta, ondoren, indarrean dagoen plangintzan aurreikusitako eraikinak sustatzeko.

ESKU6d9f3b24-b282-4035-907b-5f08d468aefc

Era berean, Sailak adierazi du bere gain hartuko dituela eremuaren garapenaren ondoriozko urbanizazio-kargak, dagokion Urbanizatzeko Jarduketa Programan eta urbanizazio-proiektuan ezartzen diren baldintzetan.

Eskualdaketa horien ondorioetarako, lurzoruek kargarik ez dutela ulertuko da, ondare- eta hirigintza-araudi aplikagarriak eskatutako baldintzetan, nahiz eta horien gainean gauzatu gabeko hirigintza- betebeharrak dauden edo egon daitezkeen. Urbanizazio-kargak, orube izateari edo orube izaera hori lortzeari datxezkion legezko eginbeharrak diren aldetik, ez dira izango ondasunaren eskualdaketa eragozten edo baldintzatzen duten karga edo muga juridikoak, eta ez diote eragiten kargarik gabeko finka gisa kalifikatzeari.

HAMAHIRUGARRENA. - Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legeak 16. artikuluan ezartzen duenez, udaleko hirigintza-plangintzak babes publikoko araubideren bati lotutako etxebizitzak eraikitzeko beharrezkotzat jotzen dituen lursailak kalifikatu ahal izango ditu, eta, gutxienez, legearen 80. artikuluan aurreikusitako estandarrak eta gutxieneko zenbatekoak betetzeko lurzorua kalifikatzeko betebeharra izango du. Kalifikazio-egintzan, lurzoru horretarako izendatutako babes-mota zehaztu beharko du hirigintza- antolamenduak.

Era berean, aipatutako lege-aginduaren 17. artikuluaren arabera, Udalaren hirigintza-plangintzaren bidez ekipamendu komunitario modura ere kalifikatu ahal izango dira berariaz lursail batzuk, erabilera nagusia bizitegietarakoa duten guneetan, zuzkidurazko bizitokiak egiteko, bai aldi baterako bizitoki izan daitezen bai premia berezia duten kolektiboentzako bizitoki sozial bihurtu daitezen; hain zuzen ere, lege honen 81. artikuluan ezarritako gutxieneko estandarrak eta kopuruak betetzeko behar adina lurzoru kalifikatu beharko da, gutxienez. Halaber, lursail horiek zuzkidura publikorako izango dira, eta nahitaez eta doan lagata eskuratuko dira ezartzeaz arduratzen den administrazioaren alde.

Etxebizitzaren ekainaren 18ko 3/2015 Legeak 19. artikuluan ezartzen duenez, administrazio publikoek, bakoitzak bere eskumen- eremuaren barruan, babes publikoko etxebizitzen sustapena bultzatuko dute, jarduera horien aldeko neurri ekonomikoak, fiskalak, hirigintzakoak eta bestelakoak ezarriz.

Etxebizitzaren ekainaren 18ko 3/2015 Legeak Lurzoru Ondare Publikoa arautzen du, eta zehazten du Eusko Jaurlaritzan etxebizitza- arloko eskumena duen sailak kudeatuko duela, besteak beste helburu hauek betetzeko:

a) Lurzorua edo bizitegirako hirigintza- eraikigarritasuna eskuratzea, etxebizitzak, bizitokiak, lokalak eta eranskinak sustatzeko edo eraikitzeko.

b) Eraikin babestu horiek eta jarduketari berari lotutako ekipamendu publikoak sustatzea edo eraikitzea bera.

Etxebizitzaren arloan indarrean dagoen araudiak ez du aurreikusten Lurzoru Ondare Publikoa osatzen duten ondasunak doan eskuratzeko kasurik edo prozedurarik, eta, beraz, azaroaren 6ko 2/2007 Legegintzako Dekretuaren bidez onartutako Euskadiko Ondareari buruzko Legearen testu bateginean horretarako xedatutakoa beteko da.

Euskadiko Ondareari buruzko Legearen testu bateginaren 38. artikuluaren arabera, ondasunak doan eskuratzeko onarpena ematea haien titulartasuna duen sailari dagokio, Gobernu Kontseiluak baimena eman ondoren, baldin eta, besteak beste, eskuratzeak baldintza edo erabilera-konpromiso bereziren bat badakar berekin eta baldintza edo erabilera horrek gasturen bat eragiten badu, eta organo eskudunak, kasu honetan bezala, doako lagapena onartzeko

ESKU6d9f3b24-b282-4035-907b-5f08d468aefc

ZARAUZKO UDALA

interes publikoko arrazoiak ikusi baditu, aipatutako lege- aginduaren 39. artikuluan ezarritakoaren arabera.

Aurreikusitako doako lagapenei dagozkien ondare-eragiketak eskritura publikoan formalizatuko dira.

HAMALAUGARRENA.- Bestalde, sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legeak administrazio- hitzarmenen lege-esparrua eta tipologia sistematizatzen ditu, eta horiek baliozkoak izateko baldintzak ezartzen ditu.

Arauak adierazten du hitzarmenak sinatzeak kudeaketa publikoaren eraginkortasuna hobetu behar duela, bitarteko eta zerbitzu publikoen baterako erabilera erraztu behar duela, onura publikoko jarduerak egiten lagundu behar duela eta aurrekontu- egonkortasunari eta finantza-iraunkortasunari buruzko legeria bete behar duela.

Horrela, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legeak hitzarmenen araubide osoa garatzen du, eta hitzarmenen gutxieneko edukia, motak, iraupena eta azkentzea finkatzen ditu. Hitzarmenek jaso behar dituzten beste gai batzuen artean, hitzarmenen aldaketa- araubidea eta indarraldia daude.

Nolanahi ere, interesak, konpromisoak eta ekarpenak behar bezala bideratzeko, bi alderdiek hitzarmen hau formalizatzen dute, honako klausula hauen arabera:

K L A U S U L A K

LEHENENGOA: Hitzarmen honen xedea da alokairuko babes publikoko etxebizitzen sustapena bultzatzea, baita zuzkidura- bizitokien sustapena ere, Zarauzko udal- mugarteko HAPOren 17. eremuko 17.2 OR Irita esparruan.

BIGARRENA: Aurreko klausulan aurreikusitako xedea lortzeko, Zarauzko Udalak konpromisoa hartzen du Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrari doan lagatzeko, kargarik (hirigintzakoak izan ezik), errentaririk edo gai kutsagarririk gabe, «r.1 Bizitegi kolektiboa» eremu xehatuko lurzatiaren jabari osoa, Zarauzko Hiri Antolamenduko Plan Orokorreko Irita 17. eremuko 17.2 OR Irita esparruan sartuta dagoena. Lurzatiak 4.356 m²-ko azalera du, 13.100 m² (t) -ko guztizko eraikigarritasun fisikoa, eta lau eraikuntza- unitatetan banatuta dago (r.1/1, r.1/2, r.1/3 eta r.1/4). Horrez gain, ekipamendu komunitariorako erabiliko den zona xehatuko 1.644 m²-ko «eq.3» partzelaren jabari osoa lagako dio, 5.440 m2t-ko eraikigarritasun fisikoa izango duen zuzkidura-bizitokietarako eraikin bat hartzeko.

Lagapen hori Udaleko Osoko Bilkuraren edo udal-organo eskudunaren erabakiaren bidez egingo da, eta erabaki hori hitzarmen hau gauzatzeko eta betetzeko hartuko da.

Lurzoruak benetan entregatu ahal izateko eta indarrean dagoen plangintzara egokitzen direla bermatzeko, Zarauzko Udalak, klausula honetan jasotako konpromisoaz gain, hirigintza-konpromiso osagarri batzuk hartu ditu. Konpromiso horiek eta udal-lizentziak eta -baimenak izapidetzearekin lotutako baldintzak hitzarmen honen bosgarren klausulan jasotzen dira.

HIRUGARRENA: Etxebizitza eta Hiri Agenda Sailak konpromisoa hartzen du doako lagapenaren xede diren ondasunak eskuratzeko eta Gobernu Kontseiluaren baimena sustatu eta izapidetzeko. Baimen hori lortuta, organo eskudunak doako lagapenaren onarpen formala egingo du, ondare- araudiaren arabera.

ESKU6d9f3b24-b282-4035-907b-5f08d468aefc

Klausula honetan adierazitako ondareen doako lagapenei dagozkien ondare-eragiketak eskritura publikoan formalizatuko dira gehienez ere sei hilabeteko epean, Gobernu Kontseiluak doako lagapena onartzeko baimena ematen duenetik zenbatzen hasita.

LAUGARRENA: Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Hiri Agenda Sailak konpromisoa hartzen du, hitzarmen honen esparruan, jarduera hauek egiteko:

- Urbanizatzeko jarduketa-programa, birpartzelazio-proiektua eta 17.2 OR Irita eremuaren urbanizazio-proiektua idaztea.

- Babes publikoko etxebizitzak eta zuzkidura- bizitokiak urbanizatzeko eta eraikitzeko obrak kontratatzea eta gauzatzea

- -17.2 Irita eremuko edo hari lotutako urbanizazio-obrak, gauzatzeke daudenak, bere gain hartzea eta ordaintzea. Obra horiek, Zarauzko Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren Aldaketaren ZONIFIKAZIO XEHATUKO planoaren izendapenaren arabera, 17.2 AOR-OR Irita 17.3 AOD-OD Amillubi eremuei dagozkie (II.2.1 PLANOA):

a) 17.2 Irita eremuko obrak

-v.2 Bide-Sarea

- el.3 eta el.4 Espazio Libreak

b) 17.2 Irita eremutik kanpoko eta hari lotutako obrak

- Egungo oinezkoen pasabidearen ordez, ibilgailuentzako bi noranzkoko zubi bat jartzea, Indamendi eta Maria Etxetxiki kaleak lotzeko.

-17.2 Irita eremutik kanpo aurreikusitako aparkalekuak egokitzea

- Behar diren neurri guztiak hartzea obrak izan dezakeen eragina ahalik eta txikiena izan dadin, eta ukitzen dituen udal-titulartasuneko ondasunak aurreko egoeran uzten direla bermatzeko.

- Lanetan sortutako hondakinak hondakinen kudeaketa arautzen duten printzipioekin bat kudeatu, hondakinen balorazioa lehenetsiz deuseztapenaren ordez, bai eta obrak izan dezakeen eragina ahalik eta gehien murrizteko beharrezko neurri guztiak hartu. Edozein kasutan, obren ondorioz udalaren titulartasuneko ondasunak kaltetuko balira, hasierako egoerara lehengoratuko dira beti.

Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Hiri Agenda Sailak bere gain hartzen dituen konpromiso guztiak aldez aurretik dagozkion aurrekontu-izendapenak izatearen eta aurrekontu-egonkortasunaren eta finantza- iraunkortasunaren printzipioak betez Euskal Autonomia Erkidegoak dituen baliabideen mende egongo dira.

BOSGARRENA: Zarauzko Udalak jarduketa hauek egiteko konpromisoa hartzen du:

- 17.2 OR Irita eremuko urbanizatzeko jarduketa-programaren,birpartzelazio- proiektuaren eta urbanizazio-proiektuaren hirigintza-izapideak ahalik eta lasterren egitea, behin betiko onarpenera arte.

-- Obrak egiteko behar diren udal-lizentziak izapidetzea lau hilabeteko epean, etxebizitzaren arloan eskumena duen organoak obra-lizentziak eskatzen dituenetik zenbatzen hasita.

ESKU6d9f3b24-b282-4035-907b-5f08d468aefc

ZARAUZKO UDALA

- Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Hiri Agenda Sailari ez eskatzea, administrazio publikoa den heinean, inolako finantza- bermerik; esaterako, aplikatu beharreko arauditik eska dakizkiokeen fidantzak edo bermeak, bereziki, hondakinen kudeaketari edo lanen gauzatzeak eragin ditzakeen udal- agintaritzaren titulartasuneko ondasun higigarri edo higiezinen leheneratzeari dagokionez.

Gipuzkoako Lurralde Historikoko Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko Zergari buruzko uztailaren 5eko 15/1989 Foru Arauaren 5.1.a) artikuluan eta zerga hori arautzen duen Udal Ordenantza Fiskalean xedatutakoaren arabera, Zarauzko Udalak zergaren kuotaren ehuneko 95era arteko hobaria ezarri ahal izango du interes berezikotzat edo udal- onurakotzat jotzen diren eraikuntza, instalazio edo obren alde, baldin eta deklarazio hori justifikatzen duten gizarte-, kultura-, historia- eta arte-inguruabarrak edo enplegua sustatzekoak badaude.

Horretan oinarrituta, Zarauzko Udalak konpromiso hauek hartzen ditu:

1.a Udal-ordenantza fiskalean Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko Zergaren kuotaren ehuneko 95eko hobaria aurreikustea, aipatutako inguruabarrak direla-eta interes berezikotzat edo udal-onurakotzat jotzen diren eraikuntza, instalazio edo obren alde.

2.a Udalbatzaren osoko bilkuraren erabaki bidez deklaratzea hitzarmen honen xede den babes publikoko etxebizitzen eta zuzkidura- bizitokien sustapenaren interes berezia edo udal-onura, deklarazio hori justifikatzen duten inguruabar sozialak daudelako.

Klausula honetan jasotako hobariak eta salbuespenak Euskadiko Etxebizitza eta Lurra SA (VISESA)-ri ere aplikatuko zaizkio, bai eta Etxebizitza eta Hiri Agenda Sailaren beste kudeaketa-tresna batzuei ere, baldin eta enpresa publiko horrek edo sailari lotutako beste erakunde batzuek hitzarmen honen xede diren babes publikoko etxebizitzak eraikitzeko jarduketak egitea sustatzen badute, programa-kontratu baten, kudeaketa- gomendio baten edo Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak xede horretarako formalizatutako beste tresna juridiko baten esparruan.

SEIGARRENA: Etxebizitzen esleipena esleipen-prozedura eta aplikatu beharreko araudian adierazitako kupoaren erreserbak errespetatuz egingo da. Etxebizitzaren arloan eskumena duen sailburuaren dagokion aginduan, etxebizitzak esleitu ahal izateko parte hartzeko baldintzak ezarriko dira, indarrean dagoen araudian jasotako etxebizitza-kupoen erreserbak kontuan hartuta, bai eta esleipenaren hartzaile izateko lehentasuna ere. Lehentasun hori Zarauzko herritarrei emango zaie, baldin eta gutxienez 3 urtez jarraian erroldatuta egon direla edo azken 10 urteetan 5 urtez erroldatuta egon direla egiaztatzen badute.

Hala ere, genero-indarkeriaren biktima diren emakumeek eta mugikortasun urri iraunkorra duten pertsonek etxebizitza horiek eskuratu ahal izango dituzte erreferentziako udalerrian erroldatuta daudela egiaztatu beharrik gabe, indarrean dagoen araudian jasotzen den bezala.

ZAZPIGARRENA: Alderdiek beharrezkotzat jotzen dute Hitzarmenaren Jarraipen Batzorde bat eratzea. Batzorde horren zeregina izango da ezarritako aurreikuspenak eta konpromisoak betetzea, horiek zorrotz betetzeko neurriak proposatzea, aurreikusitako jarduerak gauzatzean sor daitezkeen gatazkak eta/edo interferentziak konpontzea, eta, oro har, horien aplikazioarekin eta garapenarekin lotuta sor daitezkeen gorabehera guztiei erantzutea.

Jarraipen Batzordea lau kidek osatuko dute, alderdi sinatzaile bakoitzak bi pertsona proposatuko ditu.

ESKU6d9f3b24-b282-4035-907b-5f08d468aefc

Batzordeak lehendakaritza eta idazkaritza izango ditu

Alderdien artean lehendakaritza- eta idazkaritza-lanak zein administraziori dagozkion adostu ondoren, administrazio bakoitzak izendatu zaion kargua beteko duen pertsona izendatu eta, hala badagokio, ordeztu ahal izango du.

Hitzarmen honetan planteatu ez diren gaiei dagokienez, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen Atariko Tituluaren II. kapituluko 3. atalean xedatutakoaren arabera arautuko da Jarraipen Batzordea.

ZORTZIGARRENA: Hitzarmen honek izaera administratiboa dauka eta, beraz, hura interpretatu, aplikatu eta betearaztearekin edo haren ondorioekin lotuta sor daitezkeen alderdi guztiak ezagutzea administrazioarekiko auzien jurisdikzioari dagokio, behin zazpigarren klausulan aurreikusitako bidea amaitu denean

Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 6. artikuluarekin bat etorriz, hitzarmen hau ez dago lege horren mende. Hala ere, lege horren printzipioak aplikatu ahalko dira sortzen diren zalantzak eta hutsuneak ebazteko.

BEDERATZIGARRENA: Hitzarmen honen indarraldia lau urtekoa izango da, hura sinatzen denetik aurrera. Aurreko paragrafoan aurreikusitako epea amaitu aurreko edozein unetan, hitzarmena sinatzen duten alderdiek berariaz erabaki ahal izango dute hitzarmena beste lau urtez luzatzea edo azkentzea.

HAMARGARRENA: Hitzarmen hau edozein unetan berrikusi eta, hala badagokio, aldatu ahal izango da, alderdi sinatzaileek aho batez hala eskatuz gero, hitzarmenari dagokion gehigarria sinatuz.

HAMAIKAGARRENA: Hitzarmen honen suntsiarazpena edo azkentzea jarraian xedatutakoak arautuko du, hura eragin duen arrazoiaren izaeraren eta kasu bakoitzari lotutako ondorio juridiko eta ekonomikoen arabera.

1. Ez-betetze egozgarriengatiko suntsiarazpena. Alderdietako batek hitzarmen honetan jasotako betebeharrak betetzen ez baditu, hitzarmena suntsiarazi egingo da, eta alderdiak lehengo egoera juridikora itzuliko dira. Kasu horretan, suntsiarazpena eragin duen alderdiak kalte-ordaina eman beharko die benetan eragindako kalte-galerei, bai beste alderdiari, bai, hala badagokio, fede oneko hirugarrenei.

2. Gerora sortutako arrazoi objektiboengatik azkentzea. Aurrekoari kalterik egin gabe, Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza eta Hiri Agenda Sailak hitzarmena azkentzea erabaki ahal izango du, inolako kalte-ordainik jaso gabe, baldin eta hitzarmen honetan aurreikusitako jarduerak gauzatzea materialki bideraezin bihurtzen duten salbuespenezko arrazoiak, bere borondatearekin zerikusirik ez dutenak, gertatzen badira. Adibide gisa, kausa horien artean sartzen dira hirugarren pertsonek eskuratu nahi diren ondasunak okupatzea, plangintza edo aplikatu beharreko hirigintza-baldintzak aldatzea, bai eta sustapenak gauzatzea eragozten duen eta behar bezala justifikatzen den antzeko beste edozein inguruabar ere.

9.- ZARAUZKO HIRI ANTOLAMENDUAREN PLAN OROKORRAREN ALDAKETA VILLA ELIZABETH PARTZELARI (19.1 -OD TALAIMENDI- ÁREA)

ESKU6d9f3b24-b282-4035-907b-5f08d468aefc

ZARAUZKO UDALA

ETA LURZORU URBANIZAEZINEAN DAGOEN 1. POLIGONOKO 9. PARTZELARI BURUZKOA. BEHIN-BEHINEKO ONESPENA

Espedientea: 2024H7000002

http://bideoakta.zarautz.eus/?pleno=20260728&punto=9

Akordio-zirriborroa irakurri ostean, proposamena eztabaidatu eta bozkatu dute. Bozketak emaitza hau izan du:

Aldeko botoak:	12	10 EAJ-PNV, 2 PSE-EE
Kontrako botoak:	8	8 EH Bildu
Abstentzioak:	-	

Beraz, adierazitako gehiengoarekin, Udalbatzarrak erabaki hau hartu du:

2023ko abenduaren 21ean egindako bilkuran, Udalbatzak hirigintza-hitzarmen bat onartu zuen 19.1 -OD Talaimendi- areako Villa Elizabeth (Nafarroa kalea 49) partzelaren eraikigarritasun urbanistikoa handitzeko.

Tokiko Gobernu Batzarrak 2024ko uztailaren 29an hartutako erabakiaren bidez, aldaketa puntuala onartzeko espedienteari hasiera ematea erabaki zen, eta Herritarren Partaidetza Programa onartu zen.

2025eko abuztuaren 29an, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren zuzendariaren ebazpen baten bidez formulatutako Ingurumen Txosten Estrategikoa jaso zen. Txosten horretan adierazten denez, badirudi aldaketak ez duela eragingo ondorio kaltegarri nabarmenik ingurumenean, eta, beraz, ez da beharrezkoa izango Ingurumen Ebaluazio Estrategiko arruntik egitea.

2025eko urriaren 30eko Osoko Bilkuran, Udalbatzarrak hasierako onespena eman zion Plan Orokorraren aldaketari.

Era berean, espedientea jendaurrean jartzea erabaki zen. Iragarkia 2025eko azaroaren 10eko GAOn argitaratu zen.

Dagokion aldian, dagokion ziurtagiriarekin bat etorriz, 5 alegazio-idazki aurkeztu dira epe barruan, eta beste bat epe horretatik kanpo.

Oro har, aurkeztutako alegazioak aldaketaren aurka daude, uste dutelako ez dagoela aldaketa hori justifikatzen duen interes publikorik eta onura bakarra partzelaren jabegoari dakarkiola, ingurumen- eta gizarte-ondorio kaltegarriak eraginez.

Aurkeztutako alegazioei buruzko txostena aurkeztu zuen aldaketaren talde idazleak 2026ko otsailaren 3an.

Txostenak, besteak beste, arrazoi hauengatik justifikatzen du aurkeztutako alegazioak ez onartzea:

ESKU6d9f3b24-b282-4035-907b-5f08d468aefc

ZARAUZKO UDALA

Beraz, jarduketak interes publikoari erantzuten dio, onura pribatuak izan ala ez. Horiek gabe, nekez gertatuko litzateke aipatzen den oreka.

Horrela, antolatutako eraikigarritasunak partzelan aurreikusitako eraikin berria modu egokian eta arrazoizkoan txertatzeari erantzuten dio, eta hektarea bateko partzelaren lagapenak, berriz, Iñurritza eta Irita arteko San Pelaio errekaren continuumean hura edukitzeko udal helburuari.

Era berean, aldaketaren eremuan eskumena duten administrazioei txostenak egiteko eskatu zitzaien.

2026ko martxoaren 27an, talde idazleak aldaketaren dokumentua aurkeztu zuen behin-behinean onesteko, hasierako onespenerako txostenaren eta egindako txostenen ondoriozko aldaketak sartuta. Egindako aldaketak ezin dira, inola ere, funtsezkotzat jo, Kostaldearen eta Itsasoaren Zuzendaritza Nagusiaren txostenean adierazitako zuzenketei buruzkoak baitira.

Hirigintza eta Ingurumen Departamentuak dokumentuari buruzko txostena egin zuen.

Udal Planeamenduko Aholku Batzordean, 2026ko ekainaren 22ko bileran eztabaidatu zuten HAPOren aldaketa. Irizpena aldekoa izan zen, bertaratu ziren kideen gehiengoarekin.

Lurraldeko Informazio Batzordeak behin-behineko onespenaren proposamenari buruzko irizpena eman du.

Gaia aztertu ondoren, Udalbatzarrak gehiengoz, honako hau **ERABAKI DU:**

Lehenengoa.- Jendaurreko informazio epean egindako alegazioei erantzutea, honako hauen arabera:

-Leire Udabe Aizpuruak, Miren Koldobike Muniain Agotek, Patxi Xabier Etxaburu Eluk, Juan José Iribarrek, Marcos Olaizola Alcortak eta Karmen Roteta Iribarrek aurkeztutako alegazioak ezestea, 2026ko otsailaren 3an talde idazleak egindako txostenaren arrazoibideetan oinarrituta.

Bigarrena.- Behin-behineko onespena ematea Zarauzko Hiri Antolamenduaren Plan Orokorraren Aldaketa Puntualaren espedienteari, 19.1 -OD Talaimendi- areako Villa Elizabeth partzelari eta lurzoru urbanizaezineko 1. poligonoko 9. partzelari dagokionez. Onartutako dokumentua 2026ko martxokoa da, eta Santiago Peñalba arkitektoak zuzendutako taldeak idatzi du.

Hirugarrena.- Behin-behineko onespena jaso duen dokumentua Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamendurako Batzordeari bidaltzea, nahitaezko txostena egin dezan.

ESKU6d9f3b24-b282-4035-907b-5f08d468aefc

ZARAUZKO UDALA

10.- EAJ-PNV ETA PSE UDAL TALDEEK AURKEZTUTAKO PROPOSAMENA

Espedientea: 2026O0010004

— **Ertzainei egindako mehatxuak gaitzesteko mozioa**

http://bideoakta.zarautz.eus/?pleno=20260728&punto=10

Garbiñe Oiarbide Iruretagoienak, EAJ-PNV Udal taldekoak, eta Inaxio Illarramendik, PSE Udal taldekoak, mozioa irakurri dute. Proposamena eztabaidatu eta bozkatu dute. Bozketak emaitza hau izan du:

Aldeko botoak:	12	10 EAJ-PNV, 2 PSE-EE
Kontrako botoak:	8	8 EH Bildu
Abstentzioak:	-	

Beraz, adierazitako gehiengoarekin, Udalbatzarrak erabaki hau hartu du:

Ertzainei egindako mehatxuak gaitzesteko mozioa

Denbora asko daramagu entzuten garai berriak bizitzen ari garela, baina, hala ere, zoritxarrez, oraindik ohikoak dira, eta azken boladan are gehiago, Herri honetan iraganean bizi izan genituen garai-ilunak gogorarazten dizkiguten jarrerak eta keinuak. Horren adierazgarri da, besteak beste, azkenaldian ertzainei, udaltzainei eta lanpostu hauetarako oposaketak prestatzen ari diren gazteei zuzendutako hainbat eraso, mehatxu, seinalatze eta irain larri bizi izan ditugula zenbait kolektibo edota pertsonaren eskutik.

Gernikako ertzain-etxearen lurralde-eremua ere ez da jarrera horietatik libratu, eta uztaileko egun hauetan hainbat ertzain mehatxatu eta iraindu dituzte. Oraingoan, gainera, haien familia-etxebizitzak erabili dira mehatxu horiek egiteko.

Herritarren bizikidetza eta segurtasuna gizarte demokratiko baten funtsezko zutabeak dira, eta Ertzaintza zein udaltzaingoak funtsezko elementuak dira gure segurtasuna bermatzeko. Hilabete hauetan bizitako gertakariak eta gure lurralde-eremuan bizi diren agenteei iragan egunotan egindako erasoak, giza-eskubideen urraketa larria suposatzen duten jazarpen-indarkeria legez kalifika daitezke, eta jarrera guztiz antidemokratikoak dira. Horregatik, ezinbestekoa da erakunde guztiek eta hauetako arduradun publikoek gertatutakoa irmoki salatzea eta gaitzestea halakorik berriro gerta ez dadin.

Ildo horretan, mozio hau proposatzen diogu Udal honetako Osoko Bilkurari.

- Zarauzko udalbatzako ordezkariek Ertzaintzako agenteek jasan dituzten mehatxuak eta irainak irmoki salatu eta gaitzetsesten dituzte.

ESKU6d9f3b24-b282-4035-907b-5f08d468aefc

- Zarauzko Udalak euskal herritarren eskubide eta askatasunak errespetatzean eta bultzatzean eta horrek dakartzan betebeharrak betetzean oinarritutako bizikidetza-eredua babesten du, betiere indarrean dagoen lege-esparrua errespetatuz. Hori guztia bermatuta eta eutsita dago Euskal Poliziaren (Ertzaintza eta Udaltzaingoak) lan profesionalari esker.

Ion Arozenak, EH-Bildu Udal taldekoak hitza hartu du eta mozio bat prestatu dutela adierazi du eta mozio horri presazko izaera ematea eskatu du. Alkateak presazko izaera justifika dezala eskatu ostean, Ion Arozenak bere azalpena eman du.

Ondoren, bilkuran etena egin da, arratsaldeko zortzirak eta hamabietan, hausnarketarako.

Zortziak eta hogeitabat direnean, bilkurari jarraipena eman zaio eta EH-Bildu Udal taldeak aurkeztutako mozioaren presazko izaerari buruz bozkatu dute. Bozketak emaitza hau izan du:

Aldeko botoak:	10	8 EH Bildu, 2 PSE-EE
Kontrako botoak:	-	
Abstentzioak:	10	10 EAJ-PNV

Bozketak enpate eman du eta presazko izaera emateko gehiengo osoa behar denez, Udalbatzarrak EH-Bildu Udal taldeak aurkeztutako mozioari presazko izaera ez onartzea erabaki du eta ez da gaia aztertuko.

11.- ESKARI-GALDERAK

http://bideoakta.zarautz.eus/?pleno=20260728&punto=11

Puntu honetan lehendabizi Garazi Olaizolak, EH-Bildu Udal taldekoak, hitz egin du. Honako proposamena luzatu du: Udal erregelamendua aldatzeko hausnarketa bultzatzea, mozio alternatiboak aurkezteko araudia malgutzeko, epeak hain zorrotzak izan ez daitezen. Alkateak kontutan izango dutela erantzun du.

Bestetik, Gloria Vazquezek, PSE Udal taldekoak, bere desadostasuna agertu du bilkuraren 8.gaian, Irita eremuko etxebizitzen gaian, alkateak esandakoaren inguruan; bere garaian PSE Udal taldeak izandako jarreraren inguruan, hain zuzen ere.

Azkenik, batzarburu jaunak osoko bilkurari amaiera eman diote, arratsaldeko zortziak eta hogeita seietan, eta nik, idazkari akzidentalak, horren guztiaren fede ematen dut.

ESKU6d9f3b24-b282-4035-907b-5f08d468aefc

ZARAUZKO UDALA

ACTA Nª 8 DE LA SESIÓN ORDINARIA CELEBRADA POR EL PLENO DE LA CORPORACIÓN EL DÍA 28 DE JULIO DE 2026

En el Salón de Sesiones de la Casa Consistorial de la Villa de Zarautz y siendo las diecinueve horas del día 28 de julio de 2026, se reúne el Pleno de la Corporación, al objeto de celebrar la sesión ordinaria previamente convocada para estos día y hora.

Asisten los Sres. Concejales que a continuación se indican:

Presidente D. Xabier Txurruka Fernandez

Concejales
Dª. Garbiñe Oiarbide Iruretagoiena
Dª. Irune Urbieta Alberdi
D. Jesus Arana Gomez
D. Iban San Martin Hernandez
D. Iker Basurko de Miguel
Dª. Leire Arana Olabarrieta
D. Gervasio Gabirondo Fernandez
Dª. Estibaliz Agirre Uranga
Dª. Naiara Mendivil Ayerza
Dª. Garazi Olaizola Irureta
Dª. Ainara Landa Argote
D. Ion Arozena Eizagirre
Dª. Ainhize Larramendi Larrarte
D. Ander Lucas Aranceta
D. Jesus Goikoetxea Balentziaga
Dª. Eider Gurrutxaga Larrañaga
D. Mikel Agirre Etxaniz
Dª. Gloria Vazquez Herranz
D. Inaxio Illarramendi Lizarreta

No asiste: Dª. Itziar Murua Uria

Secretario accidental: D. Xabier Aranburu Soldevilla

Interventora accidental: Dª. Miren Gorrotxategi Zubizarreta

Abierta la sesión, se inicia el estudio y debate de los asuntos incluidos en el Orden del Día.

ORDEN DEL DIA

1.- APROBACIÓN DEL ACTA DE LA SESIÓN DE 23 DE JUNIO DE 2026:

ESKU6d9f3b24-b282-4035-907b-5f08d468aefc

ZARAUZKO UDALA

http://bideoakta.zarautz.eus/?pleno=20260728&punto=1

Es aprobada, por unanimidad, sin enmienda alguna.

2.- CONTROL DE LOS DECRETOS DE LA ALCALDÍA:

— **del 18 de junio de 2026 al 22 de julio de 2026**

http://bideoakta.zarautz.eus/?pleno=20260728&punto=2

La Corporación tiene conocimiento de los decretos dictados por la Alcaldía en el período del 18 de junio de 2026 al 22 de julio de 2026.

3.- CONTROL DE LOS ACUERDOS DE LA JUNTA DE GOBIERNO LOCAL:

— **del 22 de junio de 2026 al 20 de julio de 2026**

http://bideoakta.zarautz.eus/?pleno=20260728&punto=3

La Corporación tiene conocimiento de los acuerdos adoptados por la Junta de gobierno local en el período del del 22 de junio de 2026 al 20 de julio de 2026.

4.- DAR CUENTA DEL DECRETO 1792 DE 6 DE JULIO DE 2026: TOMA DE CONOCIMIENTO DE LOS MIEMBROS DESIGNADOS POR LOS GRUPOS MUNICIPALES Y DETERMINACIÓN DE LA COMPOSICIÓN DE LAS COMISIONES

Expediente: 2025IIII0002

http://bideoakta.zarautz.eus/?pleno=20260728&punto=4

La Corporación es informada sobre el decreto 2026/1792 de 6 de julio de 2026.

2023ko ekainaren 29ko ez ohiko bilkuran, Udalbatzak informazio-batzordeak eratu, osatu eta horien maiztasuna finkatu zituen.

Ondoren, 2023ko uztailaren 12ko Alkatetzaren 2023/1615 Dekretu bidez, udal taldeek batzorde horietara joateko izendatutako ordezkariak eta ordezkoak zerrendatu ziren.

2024ko ekainaren 6an, EH-Bildu udal taldeak 2024/7628 sarrera-erregistro bitartez jakinarazi zuen, haien zinegotzien aldaketa zela-eta, barne antolaketan moldaketa batzuk egin behar izan zituztela.

ESKU6d9f3b24-b282-4035-907b-5f08d468aefc

ZARAUZKO UDALA

Jarraian, 2024ko irailaren 20ko Alkatetzaren 2024/2051 Dekretu bidez, EAJ-PNV udal taldearen barneko antolaketa berriaren ondorioz, bere bozeramailearen eta batzordeetako kideen aldaketak onartu ziren.

2024ko urriaren 17an, PSE-EEk 2024/12697 sarrera-erregistro bitartez jakinarazi du, haien taldearen barruko aldaketak direla eta, bozeramailearen eta batzordeetako ordezkarietan aldaketak egitea erabaki dutela.

2026ko ekainaren 25ean, EAJ-PNV taldeak eskaera egin du informazio batzordeetan ordezkaritzak aldatzeko.

Proposamena kontuan hartuta, honakoa **ERABAKITZEN DUT**:

Lehenengoa.- Udal taldeek izendatutako kideen berri hartzea eta batzordeen osaketa honela gertzen dela zehaztea:

Antolakuntzako informazio-batzordea

	Ordezkariak	Ordezkoak
Batzordekideak:	**EAJ-PNV** Jesus Arana (lehendakaria) Iban San Martin Xabier Txurruka **EH Bildu** Ainara Landa Ion Arozena Garazi Olaizola **PSE-EE** Inaxio Illarramendi	**EAJ-PNV** Irune Urbieta (lehendakariaren ordezkoa) Garbiñe Oiarbide Gervasio Gabirondo **EH Bildu** Mikel Agirre Ander Lukas Eider Gurrutxaga **PSE-EE** Gloria Vazquez

Herritarren informazio-batzordea

	Ordezkariak	Ordezkoak
Batzordekideak:	**EAJ-PNV** Irune Urbieta (lehendakaria) Jesus Arana (lehendakari ordezkoa) Xabier Txurruka **EH Bildu** Garazi Olaizola Ainara Landa Ion Arozena **PSE-EE** Gloria Vazquez	**EAJ-PNV** Iban San Martin Gervasio Gabirondo Garbiñe Oiarbide **EH Bildu** Mikel Agirre Ander Lukas Eider Gurrutxaga **PSE-EE** Inaxio Illarramendi

Lurraldeko informazio-batzordea

ESKU6d9f3b24-b282-4035-907b-5f08d468aefc

	Ordezkariak	Ordezkoak
Batzordekideak:	**EAJ-PNV** Garbiñe Oiarbide (lehendakaria) Xabier Txurruka (lehendakari ordezkoa) Iban San Martin **EH Bildu** Ainara Landa Garazi Olaizola Ion Arozena **PSE-EE** Inaxio Illarramendi	**EAJ-PNV** Jesus Arana Gervasio Gabirondo Irune Urbieta **EH Bildu** Mikel Agirre Ander Lukas Itziar Murua **PSE-EE** Gloria Vazquez

<u>Kontuen batzorde berezia</u>

	Ordezkariak	Ordezkoak
Batzordekideak:	**EAJ-PNV** Jesus Arana (lehendakaria) Iban San Martin Xabier Txurruka **EH Bildu** Ainara Landa Ion Arozena Garazi Olaizola **PSE-EE** Inaxio Illarramendi	**EAJ-PNV** Irune Urbieta (lehendakari ordezkoa) Garbiñe Oiarbide Gervasio Gabirondo **EH Bildu** Mikel Agirre Ander Lukas Eider Gurrutxaga **PSE-EE** Gloria Vazquez

<u>Bigarrena</u>.- Ebazpen honetan hartzen diren erabakiek eragina izango dute uztailaren 13tik aurrera.

<u>Hirugarrena</u>.- Osoko bilkurari honen berri ematea egingo duen hurrengo bilkuran.

5.- APROBACIÓN DE LA CUENTA GENERAL DEL AÑO 2025

Expediente: 2026D2030001

http://bideoakta.zarautz.eus/?pleno=20260728&punto=5

La Comisión Especial de Cuentas del Ayuntamiento, en reunión celebrada el 23 de junio de 2026, ha emitido informe favorable a la Cuenta General del Presupuesto 2025.

ESKU6d9f3b24-b282-4035-907b-5f08d468aefc

La Cuenta General se sometió a exposición al público por un plazo de 15 días mediante anuncio publicado en el Boletín Oficial de Gipuzkoa nº 120, de 29 de junio de 2026, sin que se hubieran presentado alegaciones.

Por lo expuesto, a propuesta de la citada Comisión, La Corporación, por unanimidad, **ACUERDA**:

Único.- Prestar su aprobación a la Cuenta General del Ayuntamiento de Zarautz del año 2025 así como su remisión al Tribunal Vasco de Cuentas.

6.- DETERMINACION DE LA FIESTA LOCAL PARA EL AÑO 2027.

Expediente: 2026P3270001

http://bideoakta.zarautz.eus/?pleno=20260728&punto=6

Mediante el Decreto 90/2026, de 9 de junio, del Departamento de Trabajo y Empleo del Gobierno Vasco, se ha aprobado el calendario oficial de fiestas laborales de la Comunidad Autónoma del País Vasco para el año 2027 (BOPV de 16 de julio de 2026).

De conformidad con lo establecido en dicho decreto, corresponde al Ayuntamiento proponer la fiesta de carácter local del municipio para el año 2027.

En consecuencia, vista la documentación que obra en el expediente y previo dictamen de la comisión informativa de Organización, el Pleno del Ayuntamiento por unanimidad **ACUERDA:**

Primero.- Disponer que el día 26 de junio de 2027, sábado, festividad de San Pelayo, tenga la consideración de fiesta local del municipio para el año 2027.

Segundo. - Proponer al Departamento de Trabajo y Empleo del Gobierno Vasco que establezca el día 26 de junio de 2027, festividad de San Pelayo, como fiesta local del municipio para el año 2027.

7.- REGLAMENTO REGULADOR DEL PROCEDIMIENTO DE SELECCIÓN DEL PERSONAL FUNCIONARIO INTERINO Y DE LA GESTIÓN DE BOLSAS DE TRABAJO. APROBACIÓN INICIAL.

